

Enpresetako planen deskarguak



Enpresako kalitate sistemaren prozedurak onartu dituzte eta euskararen erabilera bertan arautzen denez, hauek aztertzen ari gara enpresan izango duten arduradun nagusiarekin batera. Kalitateko zuzendari aldaketa izan dela eta arduradun berriarekin kalitate prozedura onartu berriak aztertzen ari gara.

EMUNeko teknikaria: Maitane Iribar
Koordinatzaileak: Joxe Luix Agirretxe

G-30

Trebakuntza plana adostu ondoren 5 langile ari dira euskaltegira joaten. Gehienak urtarrilean hasi dira, Pasaia, Oiartzun eta Altzako euskaltegian. Beste hiru lagunek hurrengo ikasturtean hasteko konpromisoa hartu dute. Aurkeztu behar duten txostena euskaraz egiteko lanpostuko laguntzak ematen ari gara. Otsailerako, sortu berria den Euskara Batzordearen lehen deialdia egin dugu, diseinua aurkeztu eta lanerako egitura zein egutegia adosteko.

EMUNeko teknikaria: Maitane Iribar
Planaren koordinatzailea: Iratxe Osés



Azken aldian Koordinatzailearekin biltzeko zailtasunak egon dira (lan karga eta ikasketak). Beraz, ez da aukerarik izan, aurrera begira Euskara Plana definitu eta zein urrats eman zehazteko; aurrerago izan beharko da. Gainerakoan, Larrialdiak Taldearen Web orriaren itzulpena laster batean amaituta egongo da eta integratzeko moduan.

EMUNeko teknikaria: Xabier Apaolaza
Planaren koordinatzailea: Mikel Rojo

2005eko atzipen lanaren balorazioa

- 2005eko azaroa amaieran, 2005eko atzipen lanaren balorazio txostena aurkeztu zuen EMUNek udaletako euskara teknikari eta Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren arteko jarraipen bileran.

Balorazio hau egiteko, alde batetik, eskualdeko enprekin izandako harremanak aztertu ziren eta, bestetik, eskualde mailan urtean zehar egindako komunikazio ekintzak zerrendatu ziren.

Lan munduko eragileak

- Aurreko atalean aipatutako txostenaren II. kapituluari, Oarsoaldeko lan munduan euskara gehiago ez erabiltzearen eragileen zerrenda bat aurkeztu zen.

Eragileak atalka multzokatu ziren:

1. Herri administrazioa
 - Espainiako Gobernua
 - Eusko Jurlaritzak
 - Gipuzkoako Foru Aldundia
 - Udalak
2. Komunikabideak
 - Orokorrak
 - Tokikoak
 - Enpresa-komunikabideak
3. Erakunde pribatuak
 - Enpresariak
 - Sindikatuak
 - Unibertsitateak
 - Bestelakoak





ELA eta LAB sindikatuekin bilera



Automation Products, S.A. Niessen Unit

Euskara Batzordean 2005eko Gestio Planaren betetze maila aztertu genuen: gutxi gorabehera helburuen erdiak bete dira. Hala ere, ekintza guztiek ez zutela garrantzi berbera ikusi genuen eta, beraz, hurrengo Euskara Batzordean ponderatu egingo ditugu. Honela 2005eko GP ponderatuaren betetze maila izango dugu eta 2006ko GP ponderatua. Azken puntu honekin lotuta, hurrengo Euskara Batzordean 2006an indarrak non jarri aztertuko dugu eta horren inguruan gogoeta egingo dugu. Lau helburu estrategikoren inguruan egingo dugu gogoeta eta ikusi non jarri indarrak 2006an: euskararen erabileran, euskararen motibazio eta ezagutzan, euskara planaren komunikazioan eta euskara planaren enpresaratze edo instituzionalizazioan. Batzordean komunikazioarekin lotutako kezka aipatu da, hau da, lortu behar dugu plana eraldunengana ere iristea; beraz litekeena da, bereziki, arlo hau lantzea. Gainerakoan, ikasleek euskara erabiltzeko guneen azterketa egingo dugu eta laster batean beste kale neurraketa bat.

EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza**

Planaren koordinatzailea: **Oskar Arantzabal**



Azken Euskara Batzordean 2005eko Gestio Planaren betetze maila aztertu genuen, eta betetze maila altua izan ez bada ere (%36 betetze maila), sentsazio positiboa nabari da. Batetik, misio eta Plan Estrategikoa lantzen denbora dezente pasa genuelako eta, beraz, ekintza plana berandu gauzatzen hasi ginenez, logikoa delako betetze maila hori (2005ean bete gabeko helburuak automatikoki 2006ra pasako dira). Bestetik, Euskara Planaren instituzionalizazioak urrats garrantzitsua eman duelako: zuzendari batek parte hartzen du Euskara Batzordean. Euskara Planeko ekintzak dagoeneko exekutitzen ari dira. Planaren betetze mailaren berri Kontseilu Errektorean eman da eta hurrengo Euskara Batzordean gogoeta egingo dugu 2006ko urtera begira eta 2006rako Gestio Plana egingo dugu.

EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza**

Planaren koordinatzailea: **Ane Aldaraborda**

- 2005eko abenduan ELA eta LAB sindikatuekin harremanetan jarri ginen bilera bat egin eta aurrera begirako ekintzak definitzeko.

Bilera urtarrilaren 18an izan zen. Bertan, LABeko eskualdeko arduraduna den Gorka Berasategik, ELAko eskualdeko arduraduna den Igor Izagirrek eta Oarsoaldeko Euskara Zerbitzutik EMUNeko Leire Mujikak parte hartu genuen.

Aurrera begirako ekintzen artean, datozen hilabeteotan eskualdeko hainbat enpresatan sinatuko diren Enpresako Paktuetan eragitea erabaki zen. Horretarako, eskaeren orrian edo plataforman puntu bat gehituko da non enpresari OLA planean sartzeko eskaera egingo zaion.

Eskaera hori sendotzeko eta langileen ordezkariak hala eskatuz gero, OLA planari buruzko informazioa emateko ardura izango du Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuak.

Bestalde, hiru hilabete barru berriro elkartu, ekintza honen balorazioa egin eta aurrera begirako ekintza berriak zehaztea erabaki dugu.



Diru-laguntzak zuritzeko lanak egin genituen abenduan eta enpresak planarekin jarraitzea erabaki du, planaren diagnostikoa aurkeztu ondoren. Orain gerentearekin ekintza-plana, lanerako egitura eta baldintzak adosten ari gara.

EMUNeko teknikaria: Maitane Iribar
Planaren koordinatzailea: Itxaso Otegui



eraikuntzak
OTEGUI-GAZTANAGA S.L.
construcciones

Diru-laguntzen zuriketez gain planaren koordinatzaileen trebakuntzarekin ari gara buru belarri. Kalitate sistema ezartzen ari dira eta gai honetan hizkuntza kontuak aztertzeko arduradunari deskargu bilera bat eskatu diogu.

EMUNeko teknikaria: Maitane Iribar
Planaren koordinatzailea: Pilar Otegui

SJL

Azken Euskara Batzordean 2005eko helburuen betetze maila aztertu genuen, eta hemen ere helburuen erdiak bete dira gutxi edo gehiago. Urtarrileko Batzordean 2006ko Gestio Plana eztabaidatu, landu eta indarrak non jarri aztertuko dugu. Abenduan Euskararen berripaperaren lehen alea ateratzeko asmoa genuen baina atzeratu egin da Zuzendaritzak hala eskatuta; laster batean atera ahal izatea espero dugu. SJLn ere 2006an lehentasunak non jarri aztertuko dugu; erabileran, motibazio eta ezagutzan, komunikazioan eta planaren enpresaratze edo instituzionalizazioan. Gainerakoan, kamioi gidariei ematen zaien dokumentazio dezente euskaratzen ari gara.

EMUNeko teknikaria: Xabier Apaolaza
Planaren koordinatzailea: Fernando Etxezarreta

OLA planeko jarraipen sistema

- 2005eko abenduan MENDIOLA aroztegia eta PASAI konponketak enpresetara bisita egin zen. Bisita honen helburua OLA planean egon ziren eta gaur egun ez dauden bi enpresa hauetan euskara zein egoeratan dagoen atzeman eta dituzten beharrak identifikatzea izan da.

OLA planean egon zirenean egindako Ekintza Plana oinarritzat hartuz egin gabeko ekintzak zeintzuk diren ikusi da eta konpromisoak hartu dira.

Aurrerago, ekaina aldera edo, beste bisita bat egingo zaie hartutako konpromisoak bete diren ikusteko.

2005eko dirulaguntzen zuriketa

- Otsailaren 28an amaituko da 2005eko dirulaguntzak zuritzeko epea.

Ondorengo enpresek parte hartuko dute:

- Niessen
- Tajo
- SJL
- Larrialdiak
- Otegui-Gaztañaga
- Carrefour
- Alcampo



Diseinu txostena egitea lortu da diru-laguntzen zuriketarako. Horretarako erabilera neurketa egin da eta enpresako hainbat arduradun elkarrizketatu dira. Diagnostiko egokia egiteko zailtasunak izan ditugu, enpresa barruan ezin dugulako bakarrik ibili (dendan izan ezik ezin baikara bakarrik ibili) eta hainbat datu ezin dizkigutelako eman (langileen kopuru absolutuak, organigrama e.a.). Koordinatzaileak motibazio altua du.

EMUNeko teknikaria: **Maitane Iribar**

Planaren koordinatzailea: **Olatz Amonarriz**

OLA planaren BALANTZEA (2003-2005)

- EMUN OLA planaren balantzea egiten ari da. Bertan, 2003-2005 urteetako atzipen lanaren balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasoko da eta orain arte, OLA planean, enpresa bakoitzak izan duen bilakaera.

EMUNen arduradun aldaketa

- OLA planaren eta Oarsoaldetik etorri diren gainerako lanen EMUNeko proiektu arduraduna Denis Elortza izan da. Aurrerantzean, ordea, Ibon Usarralde (ibon@emun.com; 635719502) izango da.